



ZAINKETEN  
ALDEKO  
ITUNAK  
NAFARROAN

TRANSIZIOA  
KONTZILIAZIO  
TIK  
ZAINTZARAKO



# ZAINKETEN ALDEKO ITUNAK NAFARROAN

## TRANTSIZIOA

KONTZILIAZIOAREN ALDEKO  
ITUNETATIK ZAINKETEN ALDEKO  
ITUNETARA: TRANTSIZIO  
PROZESU KONTZEPTUALA ETA  
METODOLOGIKOA



Instituto Navarro  
para la Igualdad  
Nafarroako  
Berdintasunerako  
Institutua



PACTOS POR LOS  
CUIDADOS EN NAVARRA  
ZAINKETEN ALDEKO  
ITUNAK NAFARROAN

## TRANTSIZIOA

### ZAINKETEN ALDEKO ITUNAK

TXOSTENA HONETARAKO EGIN DA:  
INSTITUTO NAVARRO PARA LA IGUALDAD /  
NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA  
© GOBIERNO DE NAVARRA/NAFARROAKO  
GOBERNUA 2022KO MARTXOA

LAN HAU EDITATZEN DUENAK BABESTEN DU,  
ETA ERABILTZEKO ITURRIA AIPATU BEHAR  
DA: NAFARROAKO GOBERNUA INSTITUTO  
NAVARRO PARA LA IGUALDAD/NAFARROAKO  
BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA.

LG: NA 972-2022

## **I. BLOKEA**

SARRERA

## **II. BLOKEA**

ABIAPUNTU EGOERAREN  
AZTERKETAREN  
ONDORIOAK:  
KONTZILAZIOZREN  
ALDEKO TOKIKO

2.1 Datuak, udalerriaren eta  
udal elkartearen arabera

2.2 Ekintza motak

2.3 Kontziliazioaren aldeko  
Tokiko Itunen finantzaketa

2.4 In-Pactos proiektua

2.5 AMIA analisia eta  
ondorioak

## **III. BLOKEA**

ESPARRU TEORIKOA ETA  
ARAU ESPARRUA

3.1 Esparru teorikoa

3.1.1. Nondik gatozen

3.1.2 Zer da, gure ustez,  
zainketa

3.1.3 Zer dira Zainketen  
aldeko Itunak eta  
zergatik aukeratu  
eredu hori

3.2 Esparru juridikoa

3.3 Esparru politikoa

#### **IV. BLOKEA**

KONTZILIAZOTIK  
ZAINKETETARAKO  
TRANSIZIO ALDIKO  
AGITEKOEN  
KRONOLOGIA

4.1 Nafarroako Zainketen  
aldeko Itunen prestaketaren  
kronograma: foru ituna eta  
tokiko itunak

4.2 Trantsizio aldia martxan  
jartzeko egitekoen zerrenda

4.3 Esku hartzeko ardatzen  
deskribapena eta edukiak

#### **V. BLOKEA**

PROZEDURA  
ETA TRESINAK,  
KONTZILIAZOTIK  
ZAINKETETARAKO  
TRANSIZIO ALDIKO LAN  
PROGRAMA GARATZEKO:  
EDUKIAK/EKINTZAK,  
KRONOGRAMA ETA  
PARTE-HARTZAILEAK

5.1 Lan programaren  
laburpen fitxa

5.2 Ekintzak, arduradunak  
eta egutegia

#### **VI. BLOKEA**

KONTZILIAZOTIK  
ZAINKETETARAKO  
TRANSIZIO ALDIKO  
LAN PROGRAMAREN  
JARRAIPENA ETA  
EBALUAZIOA

6.1 Jarduketan  
jarraipenerako fitxa

6.2 Programaren jarraipen  
eta ebaluazio txostena

**I. BLOKEA**

SARRERA

N



afarroako Berdintasunerako Institutua (aurrerantzean, NABI) 2005etik ari da garatzen Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunen Programa, eta lan horretan hainbat une, emaitza eta lan prozesu izan dira. Funtsezkoa da esperientzia hori aintzat hartzea, zeinak hainbat ekintza bideratu baititu Nafarroako 39 udalerritan, eta itun horiek sortutako esparrua da, hain zuzen, egungo Zainketen aldeko Itunen Programaren oinarri.

Prozesu horrek izan duen ibilbideak, emaitzak eta eragina ikaskuntza izan dira guretzat, eta programa hori esperientzia eragingarria, efizientea eta egokia izan dadin egin duen oro jasotzea ahalbidetu digu. Horien artean bildu ditugu edukiak, metodoak, tresnak eta eragina; izan ere, erabilgarriak dira gure errealitatea egokitu eta eguneratzeko, egokia deritzoguna transferitzeko eta nahi genuen eta aurreikusi genuen eragina izan ez zuten elementuak eta praktikak hobetzeko.

Egungo errealitatea aldatu egin da, eta beharrezkoa da kontziliazioa eta erantzunkidetasuna gisako kontzeptuak baino harago iristea. Agerikoa da gaur egungo jendarteetako bizitzen iraunkortasuna bermatzeko zainketa lanen banaketak eta antolatzeako moduak zailtasunak sortzen dituztela. Horregatik, NABIren politika eta programen esparruan hasi dira Zainketen aldeko Foru Ituna eta Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunak eguneratu, eta Zainketen aldeko Tokiko Itun bihurtzeko prozesu bat osatzen. Xedea da lan prozesua eta horren emaitzak eta edukiak egungo errealitatera eta egoera politiko eta sozialera egokitzea. Izan ere, jatorrizko itunean martxan jarri ziren erantzun eta proposamenak ez beste batzuk behar dira egun.

Egia da kontziliazioak agerian utzi zuela emakumeen eta gizonen eguneroko bizitzan mantenua eta zainketa nolakoak diren; baina, egun, zainketa da berdintasun politiken agendendako iparra. Gainera, pandemiak argi utzi du oraindik zainketa lanen banaketa ez dela, inolaz ere, ekitatiboa eta berdintasunezkoa. Emakumeek dute, gehienetan, ardura hori, eta beraien bizitza pertsonalean, familia bizitzan eta lan bizitzan eragiten du.

Garrantzitsua da aurrera egitea, kontziliazioa eta erantzunkidetasuna baino harago iristea, Nafarroako emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eraiki eta finkatzeko apustu eta proposamen politiko gisa. Hori aintzat hartuta, eta 2005etik Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunetan jazotakoa ikusita, argi gelditu da Nafarroan lana dagoela egiteko, nola foru komunitate mailan, hala tokian tokiko mailan, zainketak koordinatu eta landuko badira. Eraldaketa horrek ahalbidetuko du ahalik eta ongizate- eta oreka-maila altuenean bizitzeko kontzeptu eta prozedura bakoitza bere lekuan jartzea.

Martxan jarri berri den Zainketen aldeko Itunen Programaren ardatza izanen da zainketa lanak banatu eta partekatzea, eta berdintasun politikak egokitzea Nafarroako biztanleriaren uneko gizarte eta kultura errealitatera.

Laburbilduz, Zainketen aldeko Itunak dira Nafarroak egin duen proposamena emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan aurrera egiteko, eta politika horien bidez herritarren bizitzak eta ongizatea jarri nahi dira erdigunean.

Igarotako denborak, zentzu guztietan —gizarte, ekonomia eta politika mailan—, argi uzten du gaur egun beste pauso bat egin behar dela aurrera, eta osotasunean heldu behar zaiola zainketen gaiari, eta atzean utzi garai batean zainketen esparruan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politiken erdigunean bizitza pertsonalaren, lan bizitzaren eta familia bizitzaren kontziliazioa egon zen arren. Denborak ere bai, baina, batez ere, pandemiak eta azken aldian bizitako guztiak planteatutako norabide hori eta egindako analisia egokiak direla berresten du. Zainketen parte dira kontziliazioa eta horren praktika eta proposamen guztiak, baita erantzunkidetasuna ere. Baina nahiz eta hobetu diren eta aurrera egitea ahalbidetzen duten, ez diote irtenbiderik eskaintzen zainketen arazoari, ezta horrek pertsonen bizitzetan dituen ondorioei ere, benetako errealitatea oso konplexua baita. Horregatik, beharrezkoa da hurrengo pausoa ematea, esperientziak eta ikasitako guztia aintzat hartu eta erabiltzea, eta zainketei “merezi duten garrantzia eman diezaiegun” behar den guztia txertatzea eta garatzea, gizartearen, ekonomiaren eta politikaren arloetan. Hala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneranzko bidea egingen da, eta, aldi berean, erantzun egingen zaie pertsonak eta gizarteek bizitzari, ongizateari, jasangarritasunari eta egungo beste erronka batzuen aurrean dituzten beharrei eta nahiei.



## II. BLOKEA

ABIAPUNTU EGOERAREN  
AZTERKETAREN  
ONDORIOAK:  
KONTZILIAZIOAREN  
ALDEKO TOKIKO ITUNAK



## 2.1 DATUAK, UDALERRIAREN ETA UDAL ELKARTEAREN ARABERA

2005ean sortu zen Nafarroako toki erakundeendako lanerako eta familiako bizitza bateragarri egiteko hitzarmenen programa (KTI, gaur egun). Tokian tokikoari eta gizarte ituntzeari garrantzia emanez parte hartzeko proposamen esparrua da, eta hausnarketa eta akordioak egitea sustatzeaz gain, genero ikuspegia du. Programa horren helburua zen toki entitateei eta

tokiko gainerako eragileei laguntzea irtenbide partekatuak bilatzen; batetik, bizitza, lana eta familiako eginkizunak batera eramateko arloari lotutako erronkei eta premiei aurre egiteko: eta, bestetik, pertsona guztien erantzukizun komuneko kontzientzia pizteko, bizitza pribatu eta familiarretik eratorritako zereginetara dagokienez.

URTEAK	ITUN AKTIBOAK
2005	14 TOKI ERAKUNDEK SINATU ZUTEN ITUNA. 2008AN GUZTIEK SINATU ZUTEN BERRIRO, BATEK IZAN EZIK.
2006 – 2012	BESTE 19 UDALEK SINATU ZUTEN ITUNA. GUZTIRA: 33 UDALERRI AKTIBO. LANKIDETZA 587 ENTITATE PUBLIKO ETA PRIBATUREKIN.
2013 – 2015	EZ ZEN KTIREN DIRULAGUNTZARIK EMAN. 16 UDALERRI EZ-AKTIBO 2014: PROIEKTU HAU JARRI ZEN MARTXAN: “IN-PACTOS: ZAINKETA ETIKA BERRITU, KONTZILIAZIOAREN ALDEKO TOKIKO ITUNETAKO ESPERIENTZIAK AINTZAT HARTUTA”.
2016	PROGRAMARENDAKO DIRULAGUNTZAK BERRESKURATU ZIREN, ETA BESTE 5 ITUN SINATU.
2020	BESTE ITUN 1 SINATU ZEN, KTI PROGRAMAREN BARRUAN SINATU DEN AZKENA.

Beraz, 2005 eta 2020 urteen artean, denera, 39 udalerrri edo udal elkartek jarri dituzte martxan Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunak. 39 itun horiek Nafarroako 172 udalerrri hartzen dituzte, eta

Foru Erkidegoko 580 erakunde publiko eta pribatu baino gehiagoren inplikazioa ekarri dute.

KTien kronologia, toki erakundearen arabera:

UDALERRIA EDO UDAL ELKARTEA	SINATZE URTEA
ABLITAS	2005
ALTSASU	2005
ANTSOAIN	2012
AGOITZ	2010
ARANGUREN	2019
AZAGRA	2005
BARAÑAIN	2005
BERRIOZAR	2011
BURLATA	2005
CABANILLAS	2005
CASCANTE	2020
CINTRUÉNIGO	2007
CORELLA	2006
DONEZTEBE	2009
EGUESIBAR	2019
LIZARRA	2005
FUSTIÑANA	2010
UHARTE	2007
IRURTZUN	2008
METAUTEN	2019

UDALERRIA EDO UDAL ELKARTEA	SINATZE URTEA
MURCHANTE	2005
ORKOEN	2008
IRUÑA (II ZABALGUNEA)	2009
AZKOIEN	2005
RIBAFORADA	2005
SAN ADRIÁN	2005
ZANGOZA	2020
TAFALLA	2007
TUTERA	2006
ALESBES	2005
ATARRABIA	2007
ZIZUR NAGUSIA	2007
ERDIALDEKO PARTZUERGOA	2009
BORTZIRIAK MANKOMUNITATEA	2005
LOS ARCOSKO MANKOMUNITATEA	2006
MENDABIAKO MANKOMUNITATEA	2011
MENDABIA (UDALERRIA)	2015
NOINGO MANKOMUNITATEA	2009
ULTZAMAKO MANKOMUNITATEA	2006
LEITZAKO MANKOMUNITATEA	2017



UDALERRIA	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
ABLITAS	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
ALTSASU	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	I	I	I	I	I
ANTSOAIN	S	S	S	S	S	S	S	F	A	A	A	S/A	S/A	S/A	S/A	S/A
AGOITZ	S	S	S	S	S	F	A	I	I	I	I	I	I	I	I	I
ARANGUREN	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	F	A
AZAGRA	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
BARAÑAIN	F	A	A	A	A	A	A	A	I	I	I	I	I	I	I	I
BERRIOZAR	S	S	S	S	S	S	F	A	I	I	I	I	I	I	I	I
BURLATA	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	I	I	I	I	I	I
CABANILLAS	F	A	A	A	A	A	A	A	A	I	I	I	I	I	I	A
CASCANTE	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	F
CINTRUÉNIGO	S	S	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
CORELLA	S	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
DONEZTEBE	S	S	S	S	F	A	A	A	I	I	I	I	I	I	I	I
EGUESIBAR	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	F	A
LIZARRA	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
FUSTIÑANA	S	S	S	S	S	F	A	A	I	I	I	I	I	I	I	I
UHARTE	S	S	F	A	A	I	I	I	I	I	I	I	I	I	A	A
IRURTZUN	S	S	S	F	A	A	A	A	I	I	I	I	I	I	I	I
METAUTEN	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	F	A
MURCHANTE	F	A	A	A	A	A	A	A	I	I	I	I	I	I	I	I
ORKOIEN	S	S	S	F	A	A	A	I	I	I	I	I	I	I	I	A
IRUÑA (II ZABALGUNEA)	S	S	S	S	F	A	A	A	A	A	A	S	S	S	S	S
AZKOIEN	F	A	A	A	A	A	A	I	I	I	I	I	I	I	I	I
RIBAFORADA	S	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
SAN ADRIÁN	S	S	S	S	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	?
ZANGOZA	F	A	A	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S
TAFALLA	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
TUTERA	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
ALESBES	F	A	A	A	A	A	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
ATARRABIA	S	S	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	I	I	I	I
ZIZUR NAGUSIA	S	S	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
ERDIALDEKO PARTZUERGOA	S	S	S	S	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
BORTZIRIETAKO MANKOMUNITATEA	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
LOS ARCOSKO MANKOMUNITATEA	S	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
MENDABIAKO MANKOMUNITATEA	S	S	S	S	S	S	F	A	A	A	I	I	I	I	I	I
MENDABIA (UDALERRIA)	S	S	S	S	S	S	F	A	A	A	S/A	S/A	S/A	S/A	S/A	S/A
NOAINGO MANKOMUNITATEA	S	S	S	S	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
ULTZAMAKO MANKOMUNITATEA	S	F	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A	A
LEITZALDEKO MANKOMUNITATEA	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	S	F	A	A	A


A: AKTIBOA / S: IRAUNGITZEA-ITUNIK GABE / F: SINADURAREN URTEA / I: EZ-AKTIBOA / S/A: AKTIBOA BAINA JARDUERARIK GABEA

## 2.2 EKINTZA MOTAK

Bost ekintza multzo ezartzen dira, eta multzo horietan biltzen dira udalek edo udal elkarteek martxan jarri dituzten ekintza guztiak, 2005etik 2020ra bitartean, Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunen esparruan:

- SENTSIBILIZAZIO EKINTZAK
- PRESTAKUNTZA EKINTZAK
- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO ERANTZUNKIDETASUN ITUNAK
- DENBORA KUDEATZEKO MODU BERRIAK
- UDALEN BALIABIDEAK KONTZILIAZIOAREN ALDE

Jarraian jaso dira ekintza horiek egin dituzten udalerriak.



**SENTSIBILIZAZIO  
EKINTZAK**

ABLITAS  
ALTSASU  
ANTSOAIN  
AZAGRA  
BARAÑAIN  
BURLATA  
CABANILLAS  
CINTRUÉNIGO  
CORELLA  
LIZARRA  
FUSTIÑANA  
IRURTZUN  
LOS ARCOS  
MURCHANTE  
ORKOEN  
IRUÑA  
AZKOEN  
RIBAFORADA  
SAN ADRIÁN  
TAFALLA  
TUTERA  
ULTZAMA  
ALESBES  
ZIZUR  
ERDIALDEA

**PRESTAKUNTZA  
EKINTZAK**

ALTSASU  
ANTSOAIN  
AZAGRA  
BORTZIRIAK  
CINTRUÉNIGO  
CORELLA  
LIZARRA  
FUSTIÑANA  
IRURTZUN  
LOS ARCOSKO MANK.  
MENDABIA  
MURCHANTE  
ORKOEN  
RIBAFORADA  
SAN ADRIÁN  
TAFALLA  
TUTERA  
ULTZAMA  
ALESBES  
ZIZUR  
ERDIALDEA

**EMAKUMEEN ETA  
GIZONEN ARTEKO  
ERANTZUNKIDETASUN  
ITUNAK**

ALTSASU  
ANTSOAIN  
BURLATA  
CINTRUÉNIGO  
LIZARRA  
FUSTIÑANA  
ORKOEN  
TAFALLA  
TUTERA  
ZIZUR

**DENBORA KUDEATZEKO  
MODU BERRIAK**

ANTSOAIN  
CINTRUÉNIGO  
LIZARRA  
FUSTIÑANA  
LOS ARCOS  
NOAIN  
ORKOEN  
IRUÑA  
SAN ADRIÁN  
TAFALLA  
ZIZUR

**UDALEN BALIABIDEAK  
KONTZILIAZIOAREN  
ALDE**

ABLITAS  
ALTSASU  
ANTSOAIN  
AZAGRA  
BARAÑAIN  
BORTZIRIAK  
BURLATA  
CINTRUÉNIGO  
CORELLA  
DONEZTEBE  
LIZARRA  
FUSTIÑANA  
UHARTE  
IRURTZUN  
LOS ARCOSKO MANK.  
MURCHANTE  
ORKOEN  
PERALTA  
RIBAFORADA  
SAN ADRIÁN  
ZANGOZA  
TAFALLA  
TUTERA  
ULTZAMA  
ALESBES  
ATARRABIA  
ZIZUR  
ERDIALDEA

## 2.3 KONTZILIAZIOAREN ALDEKO TOKIKO ITUNEN FINANTZAKETA

Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunen finantzaketa NABIk deitutako urteroko dirulaguntzen deialdi baten bidez egiten da, eta itunetan zehaztutako neurri edo ekintzak garatzea izaten du helburu.

Toki erakundeendako KTI dirulaguntzen deialdia 2006-2020:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ITUN KOPURUA	URTEA
20	2006
16	2007
27	2008
23	2009
28	2010
32	2011
34	2012
Dirulaguntzarik gabe	2013
Dirulaguntzarik gabe	2014
Dirulaguntzarik gabe	2015
10	2016
12	2017
1	2018
15	2019
17	2020

## 2.4 IN-PACTOS PROIEKTUA

Dirulaguntzarik egon ez zen denbora tartean, honako proiektu hau jarri zen martxan: “IN-PACTOS: zainketen etika berritzea, Zainketen aldeko Tokiko Itunetako esperientziak aintzat hartuta”, 2014an, hain zuzen ere. Toki erakundeetako politikariekin eta teknikariekin egindako lanaren emaitza da proiektua, zeina hausnarketa prozesu sortzaile baten bidez sortu baitzen, eta xede baitu praktika onak praktika berritzaile bihurtu eta transferitu ahal izatea, KTI programa dinamizatu eta sustatzeko. Horretarako, aipatutako programaren barruan sortutako praktika on horietako batzuk sistematizatu egin dira, ondotik zabaldu eta transferitzeko.

Proiektu horren helburua hau zen:

- Toki erakundeetan zainketei heldu eta bizikidetzaren ereduak aldatzeko proposamenak aurkeztea.
- Lan egiteko modu berritzaile bat sistematizatea: zainketei dituzten hainbat dimentsiotan sakontzea, sormen prozesu baten bidez, eta hortik beste ideia batzuk sor daitezkeen (hobeki bizitzeko proposamenak).
- KTI bakoitzaren eta hura osatzen duten guztien izaera eraldatzailea eta mobilizatzailea aintzat hartzea, baita beraien lan esperientzia ere, zeina beste lurralde batzuetako erreferente izan baitaiteke.
- KTIak mobilizatu eta dinamizatzeko lan proposamena egitea, “bultzada” bat ematea hazi daitezkeen eta toki erakundeendako tresna erabilgarri izaten jarraitzeko apustua egin dezaten, zainketa lanak arduraz, konpromisoz eta elkartasunez egiteko.

# 2.5 AMIA ANALISIA ETA ONDORIOAK

## AHULGUNEAK (BARNEKOA)

- Legegintzaldi aldaketek baldintzatu egiten dute, neurri batean edo bestean, berdintasun politiken kudeaketa eta programa jakin batzuen garapena eta jarraitutasuna.
- Krisi ekonomikoak murrizketak eragin zituen sektore guztietan, eta 2012tik 2015 arte beharra egon zen KTIak martxan jarri eta garatzeko dirulaguntzarik ez eskaintzeko.
- Itunen mendekotasun ekonomikoa, NABlren dirulaguntzen deialdiarekiko. Krisiaren eraginez dirulaguntzarik izan ez zen unean, itun horietako asko betetzeari utzi zitzaion.
- Erakunde sinatzaile guztien partetik KTIa sinatu izanak konpromiso argiak zekarzkien arren, ez zen nahikoa argi ezarri erakunde horiek guztiek kontziliazioaren aldeko ekintzak egin behar zituztenik, eta, beraz, zenbait erakundek ekintza zehatzik martxan jarri gabe sinatu zuten ituna.
- Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunetan (2005–2021), kontzeptualki ez zen aurrerapausorik egin, eta kontziliazioa eta erantzunkidetasuna aintzat hartzen ziren arren, ez zen zainketa lanak aipatzen.
- KTIetako erakunde parte-hartzaileen aldetik konpromiso falta.
- Itunaren ordezkariak zirenek ez zuten ituneko informazioa beraien erakundeetara transmititu, eta komunikazioan hutsuneak izan ziren.
- Berdintasunaren alorreko zenbait espazioren artean sinbiosia edo nahasmena izan zen.
- Kontziliazioaren aldeko itunetan parte hartzen zuten erakunde hauek ez zuten autonomia nahikorik, beste batzuen mende baitzeuden: NABI eta udalak.
- NABlren dirulaguntzen deialdietan zailtasunak izan ziren, itunetara bertaraten ari zirenen ordutegietara egokitzeko zailtasunak izan baitziren haien ordutegiak aintzat ez hartzeagatik, eta horrek ez zuen erraztu interesa izan zezaketen beste pertsona konprometitu batzuk parte hartu ahal izaterik.
- Erakundeen aldetik gehiegizko tutoretza izan zen, baita laguntza teknikoaren aldetik ere.
- Barne erregelamendu bat falta izan zen.
- KTIen esparruan eginiko lana lotzen zuen haria falta izan zen.
- Oinarri sendo baten falta: toki erakundeetan itunak ongi egikaritzeko langileak eta aurrekontu propioak falta ziren.
- Dirulaguntzen administrazio prozedura honako hau zen: toki erakundeendako deialdiak ezartzen ziren; udalek ituna egikaritzeko diru kopuru jakin bat gorde behar zuten (hots, aurrez ordaindu eta ondotik kobratu). Parte hartzeko zailtasunak: toki erakundeak eta itunak nola diruz lagundu.
- Toki erakundeek KTIekiko zituzten eskumenak mugatuak ziren (sabaia).

## ARRISKUAK (KANPOKOA)

- Lana sexuaren arabera zatikatzearen eraginez ziren emakumeak kontziliazio neurriak erabiltzen zituztenak (baimenak, murriztapenak eta eszedentziak). Gizonek erantzunkidetasun-maila baxua zuten zainketa lanetan.
- Orokortu egin zen, aldiz, emakumeek rol bikoitza hartu eta jardunaldi bikoitzak egitea: lan merkatukoa (ordaindua) eta zainketa lanak (ordaindu gabeak).
- Horrez gain, laneko eta familiako bizitza bateragarri egitea norberaren arazotzat hartzen zuten, batez ere, emakumeek, eta ez gizarte arazo gisa.
- Agenda 2030eko 5. helburuaren 44. adierazlearen arabera, Nafarroako biztanleria ez-aktiboa % 20,4 da, sexu bietan, zainketa lanek dakartzaten arduren eraginez. Ehuneko hori sexuaren arabera bereiziz gero, gizonen % 4,8 eta emakumeen % 30,1.
- COVID-19ak eragindako krisi ekonomikoak emakumeei eragin die bereziki (langabezia), eta agerian utzi du zainketaren krisia globala dela, eta lan horien ardura emakumeen gain dagoela.
- Izan ere, ezkutuko ekonomian zainketa lanak egiten dituztenak eta etxeko langileak emakumeak dira, eta enplegu irregularra eta prekarioa izaten da.
- Kontratazio partziala eta nahi ez den behin-behinekotasun handia, emakumeengan, batez ere. Horrez gain, iraupen luzeko langabeziaren intzidentzia ere handiagoa da emakumeengan, eta horrek, aldi berean, pobrezia arriskua emakumeengan handiagoa izatea dakar, gizonezkoengan baino.
- Ordainsaririk gabeko zainketa lanen garrantzi sozialak eta balio ekonomikoak ez dute ikusgarritasunik.
- Adingabeei eta mendekotasuna duten pertsonen arreta eskaintzeko azpiegiturak eta zerbitzuak ez dira behar bestekoak. Enpresek eta erakunde publikoek konfiantza dute zainketa lanak egiteko nahikoa dela familiaren sostengua.
- 55 eta 65 urte arteko emakume asko familiak eragindako kargaren mende bizi dira.
- Biztanleria zahartzen ari da progresiboki, eta horrek mendekotasun tasa areagotu egiten du.
- Kultura parte-hartzaileago eta demokratikoagoa izan dadin falta da.
- Zainketa kontzeptuaz jabetu dira, alderdikieriaz (alderdi politikoak).
- Familia esparruan eta esparru pribatuan eredu tradizionalak zainketa lanak emakumeen gain jartzen ditu.
- Binarismoa dago zainketa lanei aurre egiteko orduan: esparru publikoa eta pribatua.
- Norbere buruaren zainketarik ez da egiten: ez dago norbere burua zaintzeko ohiturarik.
- Eremu komunitarioaren ezagutza falta dago: komunitate mailako zainketez ari garenean, rolak errepikatu egiten dira espazio askotan (elkarteetan, boluntariorietan...), eta zainketa lanak emakumeen egin ohi dituzte.
- Itunean ezarritakoaren euskarri izanen den sistema publikoa falta da.

## INDARGUNEAK (BARNEKOA)

- NFK-ko toki eremuak ibilbide oparoa eta esperientzia du zainketen kudeaketan eta kontzilioaren aldeko programetan, eta horietan parte hartu izan dute erakunde publiko eta pribatuek.
- NABIk aurretiaz lan egin izan du, genero zeharkakotasuna Nafarroako Gobernuaren departamentu guztien politika publikoetan ezar dadin.
- Nafarroako Gobernuaren departamentu bakoitzean berdintasun unitate bat.
- COVID-19aren krisia zela eta, erantzunkidetasunezko kontzilioarako departamentuen arteko talde bat osatu zuten Nafarroako Gobernuko hainbat departamentuk.
- Administrazioan eta enpresetan berdintasuna eta zainketen kudeaketa dinamizatze gaitasuna, Zainketen aldeko Foru Itunaren bidez. Nafarroako Gobernuak berdintasunaren eta zainketen aldeko konpromiso politikoa du.
- Zainketen aldeko Ituna osatzen du Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako plan estrategikoak (2022-2027), zeina Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legean ageri baita.
- Berdintasun politiketarako baliabide materialak eta giza baliabideak NABIk eta tokian tokiko udal berdintasun esparruek eskaintzen dituzte. Izan ere, azken horiek gizartearen sentsibilizazioan eta zainketen kudeaketarako neurriak martxan jartzen lan egiten dute, foru itunaren eta zainketa gaiei buruzko tokiko itunen bidez.
- Kontzilioaren aldeko Tokiko Itunek 2005etik diraute martxan, eta bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egitea bultzatzeko praktika onak sustatu dituzte.
- Erantzukizun handiko postuetan dauden emakumeen ikusgarritasuna areagotzeak tradiziozko rolak aldatzea dakar, eta laneko bizitza, familiakoa eta bizitza pertsonala bateragarri egin ahal izateko neurrien beharra ikusarazten du.
- Berdintasun planak ezarri eta enpresetan berdintasuna eta kontzilioa lortzeko asmoz ezarritako neurriak dira.
- NFKn aurretik izandako instituzioen arteko lankidetzaren esperientziak: Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Nafarroako Erakunde arteko III. Akordioa.
- Zainketen gaineko etengabeko prestakuntza.
- Proiektu komun baten parte izate sentimendua.
- Itunen esparruan sortu eta garatutako harremanak eta sinergiak.
- Pertsona eta erakunde parte-hartzaileek berdintasun politikak barneratzea.
- Zainketei buruzko Inter-Pactos urteroko topaketak, bakoitzak bere esperientziak partekatzea edo Kontzilioaren aldeko Tokiko Itunen programen ebaluazioa egitea.
- KTlek hiruki itxurako egitura dute: politika, teknika eta gizarte erakundeak.
- Erakunde parte-hartzaileen artean sortutako sareak: Askotariko pertsonen arteko elkargune dira itunak.



## AUKERAK (KANPOKOA)

- Zainketa lanetarako babes iturri informalak: familiak eta beste. Tradiziozko familia egituraren aldaketa eta familia moten dibertsifikatzea.
- Garapen jasangarriko helburuak (GJH); horien artetik bosgarrena da Generoen arteko berdintasuna eta emakume eta neska txikiak ahalduntzea lortzea eta, zehazki, 5.4 puntua: erantzunkidetasuna eta kontziliazioa sustatzea.
- Itunean ageri diren zainketen kontziliazioan izandako aldaketaren harira hazi egin da gizarteak gai horrekiko duen sentsibilitatea.
- Aldeko arau testuingurua: 39/1999 Legea, langilearen familia eta lan bizitza uztartzea sustatzekoa, 39/2006 Legea, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, 6/2019 Errege Lege Dekretua, enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera berdintasuna bermatzeko presako neurriena, 3/2007 Lege Organikoa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa eta 17/2019 Foru Legea, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa, besteak beste.
- COVID-19ak ekonomia eta zainketen krisia areagotu egin du: aukera izan da ekonomian egiturazko aldaketak egin eta kudeaketa hobetzeko. Nafarroa Suspertu planean eta 2030 Agenda Nafarroan adierazi da.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna zeharka ezartzeko borondate politikoa dago, eta testuinguru instituzionala berdintasuna osorik sustatzeko modukoa da.
- Teknologia berriak erabiltzeak denbora hobeki kudeatzea ahalbidetzen du.
- Telelanak zenbait ate zabaldu ditu, eta ongi arautuz gero, langileen malgutasunari mesede egin diezaioke.
- Estatu mailako erantzunkidetasun planarekin bat egiten du zainketen aldeko foru itunak, eta NFK-k funtsik jasotzen ez duen arren, bere borondatez parte hartzen du plan horietan.
- Beste parte-hartze prozesu batzuk jarri dira martxan, baita beste berdintasun politika batzuk ere.
- Berdintasun politikak ikusgarri egin eta finkatu egin dira.
- Proiektu berritzailea: Nafarroako Zainketen aldeko Itunen Programa.
- Beste autonomia erkidego edo herrialde batzuei transferitzea.
- Kontziliazioaren aldeko Itunen bidez zerbitzuak, baliabideak eta programak sortu ziren, eta baliabide iraunkor gisa finkatuta daude egun.
- Kontziliazio eta zainketa gaietan sentsibilizazio lana, eta beraz, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzkoa.
- Biztanleria osoak zainketan parte-hartzeak duen garrantziak ikusgarritasuna irabazi du.
- Aukera dago zainketa lanek sexurik ez dutela zalantzan jartzeko: hots, aukera dago zainketa lanak gizarte osoaren gain jarri eta soilik emakumeak aritu behar direlako estereotipoa deuseztatzeko.

## ONDORIOAK

AMIA analisisian ageri den moduan, Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunen Programak, zeina 2005 eta 2021 artean garatu baitzen, hainbat une, emaitza eta prozesu bildu zituen barruan, eta eragin handia izan du. Izan ere, Nafarroako udalerrri askotan ahalbidetu du zenbait arlotan hasieran uste zena baino harago iristea, emaitzei eta proiektuaren jarraitutasunari dagokienez.

Bestalde, programa hori martxan izateak agerian utzi du programan bertan ere asko dagoela hobetzeko, berrikusteko eta aldatzeko. Aintzat hartzekoa da igaro diren urte horietan guztietan errealitatea aldatu egin dela, bere funtsean, azken aldiko fenomeno ekonomiko, sozial, politiko eta sanitarioen eskutik. Fenomeno horiek denek, zeintzuk bizi izan garen testuinguruan garatu baitira, beste proposamen, metodo eta, batez ere, beste bide eta formula batzuk eskatzen dituzte, egungo Nafarroako errealitatei eta bertan bizi den jendeak planteatzen duenari aurre egiteko.

AMIA analisia oinarri hartuta, eta aurrez bizi izandako ibilbidea eta esperientziak aintzat hartuz gero, honako hau ondoriozta dezakegu:

- 1 KTI programak udal askori aukera eman die berdintasun politikak finkatzeko eta garatzeko ez ezik, politika horiek teknikaririk gabe eta, zenbait kasutan baliabide propioirik gabe ere martxan jartzeko.
- 2 Programa horrek izan dituen emaitzak eta horietatik jasotako ikaskuntzak berdintasun gaien etorkizunaren eta aurrerapenaren oinarri izanen dira, zainketari eta horri lotutako eduki eta formulei dagokienez.
- 3 Itunak gizartearen parte-hartzearen eta eztabaida politikoaren bilgune bilakatu dira, eta horrek biztanleriaren eta botere publikoen arteko koordinazioa egon zedin aukera eman du, familien kontziliazio arazoei eta, batez ere, programa egin den udalerrietako emakumeenei irtenbideak bilatzeko.
- 4 Oso garrantzitsua da programaren ikaskuntzak eta gabeziak identifikatzea, hurrengo Nafarroako Zainketen aldeko Itunen Programa egiterakoan kontuan izateko.
- 5 Garrantzitsua da programa horren parte izan diren elementuak indartzea, baita programaren oinarrian dauden edukiak eta kontzeptuak ere.

- 6 Beharrezkoa da aurreikustea zainketak beharko dituzten gatazken erantzunak eta irtenbideak. Hala, diseinatu eta martxan jartzeko errealitatearekin bat datozen eta herritarren eta instituzioen beharretara egokitutako proposamenak, betiere aintzat hartuta zeintzuk diren bakoitzaren ardurak eta baliabideak. Horretarako, eskumenak ere kontuan hartu beharko dira, baita egun herritarrek mahaiaren gainean jartzen dituzten arazoei eta erronkei aurre egiteko irtenbideak diseinatzeko orduan alderdiek zer aukera dituzten ere.
- 7 Nafarroako Gobernuak ezarri dituen arren zainketa lanek sortutako gatazkari eta kontziliazio eta erantzunkidetasun ezak sortutakoari aurre egiteko baldintza juridiko-politiko jakin batzuk, oraindik beharrezkoa da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gauzatzeko lanetan inbertsioak egiten jarraitu eta konpromisoa mantentzea, batez ere zainketari dagokionez.
- 8 Errealitatea aldakorra da. Aldakortasun horrek etengabe berrikustea, eguneratzea eta hainbat proposamen eta metodo proposatzea eskatzen du, herritarren behar eta erronkei ziurtasunez eta behar bezala erantzunen bazaie. Horretarako, beharrezkoa da instituzioek eta gizarte erakundeek ardurak banatzea.



# III. BLOKEA

ESPARRU TEORIKOA  
ETA ARAU ESPARRUA

## 3.1.1

## NONDIK GATOZENDUTEN

Lanaren banaketa sexualaren sostengu dira, gaur egun ere, aurreiritziak eta estereotipoak, zeintzuk tradiziozko identitate maskulino eta femeninoen arabera eraikiak baitaude. Emakumeak zaintza lanetan aritzera behartzen dituzte, ugaltzeko gaitasunaren beste adar gehigarri bat balitz bezala. Gizonak, aldiz, lehiakor izatera eta lanean gehiegizko ahaleginak egitera behartuta daude, gidoi sinbolikoak etxea mantentzeko eta ondasun materialak eta intelektualak sortzeko ardura duten “gerlari” rola eman baitiete. Dena den, bi sexuen rolek ez dute pisu bera, ez botere aldetik ez eta izen aldetik ere: rol maskulinoak, zeinetara progresiboki sartzen joan baitira zenbait emakume, garrantzia kentzen dio zainketari, eta, beraz, baita emakumeek munduari eta bizitzari egin dizkioten ekarpen guztiei ere. Rol hori betetzen duten pertsonak, ez dute, horrenbestez, aitortzarik, segurtasunik eta legokiekeen ordainsaririk jasotzen.

Lanaren banaketa sexuala iruzur bat da. Izan ere, etxeko lanak, hazierak eta mendekotasuna duten pertsonen zaintzak hedatzeko joera dute, eguneko jardunaren osotasuna betetzen duten arte. Elkarbizitzak konpromisoak eskatzen ditu, eta konpromiso horiek areagotzen diren heinean gora egiten du ahalegin mentalak eta fisikoak, baita gastuek ere. Etxeko lanbideak ez du araututako ordutegirik, ez atsedunik, ezta oporrik ere. Gainera, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeen kasuan ez da askorik murrizten etxe barruko lan karga. Horregatik esan ohi da “lanaldi bikoitza” dela. Arazoa are gehiago larritzen da,

emakume horiekin bizi diren gizonak ez dutelako beraiek besteko ardurarik hartzen; orokorrean, gutxiago egiten dutelako.

Hori gutxi balitz, aurreiritzi sexistak hori dirau kontratazioak egiteko orduan. Anitzetan, emakumeek, ama izatean, beraien langintza eten edo lanaldia murrizten dute. Ohikoa da lanaldi partzialeko kontratuak hartzea, ordutegiak murriztea edo lan egiteko modu malguak bilatzea. Espainian, amatasun baimenaren ondotik emakumeen erdia baino ez da bueltatzen bere lanpostura. Hala ere, ezin izaten diete eutsi, ez behintzat nahiko luketen bezala, bi ardura horiei. Errua sentitzen ahal dute horregatik, baina ez dute zergatia ulertzen: “ama txarraren” sindromea da. Kontziliazio eta erantzunkidetasun neurriek lagundu egiten duten arren, orokorrean, nekeak eta elkarbizitzan sortzen diren gatazkek dena arriskuan jartzen dute: familia, bikotea eta lanpostua. Aitek, aldiz, kontrakoa egin ohi dute: denbora gehiago eskaini ohi diote profesional gisa ibilbidea osatu eta goraka egiteari.

Zainketen exigentziari gaur egungo familia ereduek bere horretan eutsi ezin izaten diotenez, diru sarrera ertain eta altuko etxe gehienetan zainketak azpikontratatu egiten dituzte, etxeko langileen bidez. Funtzio hori betetzen dutenak laneko egoera eta egoera pertsonal prekarizatuan bizi diren emakumeak izan ohi dira. Latinoamerikako eta Europa ekialdeko emakume migratuek honako egoera hauek bizitzen dituzte: beraien seme-alaben eta familien zaintza

albo batera uzten dute jatorrizko herrialdean, baliabideak dituzten klaseetako jendearen beharrak asetzeko. Haiek utzitako hutsuneak gabezien lekualdaketa eragiten du, eta “zainketen ihesa” edo “zainketen kate globala” deritzon fenomeno da agertzen.

Arazoa konpontzeko, lehenik eta behin, beharrezkoa da lanaren banaketa sexuala errazten eta betikotzen duten elementuak identifikatu eta konpontzea.

Orokorrean, kontziliaziorako eta erantzunkidetasunerako politikak eta neurriek emakumeek egiten dituzten zainketa lanak ordeztzen dituzte, doan eta atxikimendu urraezinaren bidez. Ama, alaba arduratsua edo zainketen arduraduna ez dagoenean (lanbidea arrazoi, orokorrean) zerbitzu horiek azpikontratatu egiten dira. Erosahalmen ertain edo altuko familia gehienek etxeko langileak baliatzen dituzte, hots, modu prekarioan, baldintza txarretan eta ordainsari baxuaren truke lan egiten duten beste emakume batzuegana jotzen dute. Bestela, mesfidati, zerbitzu publikoetara jotzen dute, zeintzuk urriak baitira eta instituzionalizazioaren estigma baitaramate gainean.

90eko hamarkadan egin zuten lekua kontziliaziorako eta erantzunkidetasunerako politikek agenda publikoan. Politika haien helburua zen emakumeen laneratzea sustatzea; orain, ordea, badakigu kontziliazioaren aldeko neurriek betikotu egin zutela lanaren banaketa sexuala, batetik, eta zainketen urritasuna, bestetik. Ez zuten arazoaren funtsa konpondu. Neurri haiek lortu zuten une hartako behar jakinei aurre egitea, edo, transferentzien edo dirulaguntzen bidez eta kostu aukera aintzat hartu gabe, emakume asko bizi egoera batean preso hartzea, hurkoen eta maite zituztenen zainketa lanetan kateatuta.

Izan ere, kontziliazioaren aldeko politikek lortu nahi zenaren kontrakoa lortu dute, eta ondorio gaiztoak izan ditu: emakumeei lan mundutik ihes egiteko erraztasunak eman dizkiete familian zainketen beharrak agertu direnean, izan guztiz ala partzialki. Egia da horrek askori lagundu diela beraien lanpostua berreskuratzen amatasunaren edo mendekotasunak dituzten pertsonak artatu ondoren, baina beste askok lanpostua galtzea edo profesional gisa hobetzeko eta ibilbide profesionalean aurrera egiteko izan zitzaketen aukerak galtzea ere eragin du.

Kontziliazio politikek mundu mailan enplegu mota jakin bat sortzea eragin dute, berariaz emakume zaintzaileendako sortua eta haien beharretara egokitua. Hala, murriztu egin da lanaldi osoan luzaroan egoten diren emakume kopurua, eta ez da egiturazko eraldaketarik edo aurrerapen handirik izan beraien menderakuntza egoerari dagokionez.

Oso zaila da zainketen urritasunak sortzen duen arazoa politika eta baliabide publiko hutsen bidez konpontzea. Denboraren erabilerari eta kontu sateliteen objektibazioari buruzko ikerketek emakumeek doan, maitasunagatik, egiten dituzten etxeko lanen eta zainketa lanen balioa eta prezioa zenbatestea dute xede. Merkatuko orduko prezioaren arabera kalkulua eginez gero, estimatzen da edozein herrialde garaturen BPGaren % 40 eta % 60 arteko balioa izan dezakeela. Ez dago halako zerbait ordaintzeko gai den gobernu edo administrazio publikorik. Hala ere, horrek ez du esan nahi beraien ardura ez denik eredu aldada dakin ekintzak programatu eta exekutatzeko, hots, “zainketa gizarte baterantz” bideratzea.

Etxeko lanen eta zainketa lanen banaketa bidezkoa, hots, familia kontziliazioa eta erantzunkidetasuna deritzena, helburu noblea izan arren, ez da nahikoa. Irtenbide egokiena litzateke sektoreen arteko itunak sustatzea, honako hau gerta dadin:

- ZAINKETA LANETAN GIZONEN PARTE-HARTZEA SUSTA DEZATEN.
- HAUR HEZKUNTZA ZERBITZUAK UNIBERTSALIZA DITZATEN.
- ADINEKO PERTSONENDAKO ARRETA ZERBITZUAK UNIBERTSALIZA DITZATEN.
- MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONENDAKO ARRETA UNIBERTSALIZA ETA PROFESIONALIZA DEZATEN.
- EZAR DITZATEN LANEKO ORDUTEGI MOTZAK ETA ARRAZIONALAK.
- TRANPA SEXISTA GAINDITU ETA OREKATUAK IZAN DAITEZEN EMAKUMEENTZAT ETA GIZONENTZAT.
- ETXEKO LANAK DUIN BIHURTU ETA BEHAR BEZALA ORDAINDU DITZATEN.
- KOMUNITATEKO ERAGILEEN IRITZIA ETA ESPERIENTZIA AINTZAT HAR DITZATEN.
- SUSTATU DITZATEN AUZOTASUN ONEKO HARREMANAK ETA HIRI ATSEGINAK.
- INGURUA ETA NATURA BALIABIDEAK ZAINDU ETA ELIKA DITZATEN.



Halako neurriak sustatzeak kostu handia izan ohi du, eta ezin izaten da beti, ez guztiz, behintzat, diruz ordaindu, izan aurrekontu publikoak zein pribatuak. Diruz ordain daitezke instituzioek emandako zerbitzuak eta zainketa lanetako profesionalak, 0-3 urte arteko haurren hezkuntza, egoitzak eta eguneko zentroak, kasu. Baina denbora bera ere oso aintzat hartzeko moduko sargaia da, zenbaitetan malgua, beste zenbaitetan zirkularra, familiako eta etxeko zainketa lanetan aritzen diren emakumeena, esaterako. Baita dedikazioa eta ahalegina aldagai diren esperientzietan ere. Batzuetan, kide izateak baldintzatu egiten du familia zabalak ematen dituen zainketa informaleen aukera edo itzulketa, baita auzokideekiko harremanak edo laguntasun harremanak ere. Zainketen haritik sortzen diren beste balio batzuk ezin kuantifika daitezke, nahiz eta eskersariak egoten diren, emozioak eta afektua, esaterako.

## 3.1.2

### ZER DA, GURE USTEZ, ZAINKETA

GIZA BIZITZAK DUINTASUNEZ,  
AUTONOMIAZ ETA ONGIZATEZ  
ERREPRODUZITU, HAZI ETA SOSTENGATU  
DAITEZEN BEHARREZKOAK DIREN  
AHALEGIN, ZEREGIN ETA LANEN  
MULTZOA, IZAN PUBLIKO ZEIN PRIVATU.  
HORIXE DA ZAINKETA.

Zainketak garrantzia ematen die zaurgarritasuna, interdependentzia, elkarrekikotasuna, kontziliazioa eta erantzunkidetasuna gisako kontzeptuei. Zainketa bidegabenez edo zainketen zorrez zein zainketen krisiaz hitz egiten dugun aldiro, estatuen, merkatuen, hiritarren, etxeen eta pertsonen arteko banaketa bidegabe eta berdintasunik gabeaz ari gara.

Tradizioz, zainketa lanak beti egin izan dira familia esparruan. Emakumeak izan dira, gehienbat, horretan aritu direnak. Patriarkatu kapitalistak emakumeak erabili ditu ekoizpen ekonomikoaren eta ugalketa sozialaren sostengu gisa. Azken aldiak ikusi dugu, feminismoen teoria kritikoei eta ekintza politikari esker, handia dela zainketen arloan daukagun urritasuna; eta urritasun hori lanaren banaketa sexual eraginkortasunik gabeak eta artifizialak eragin duela. Emakume zaintzaileen abnegaziorik, entrega osorik eta atxikipen hautsezinagatik ez balitz, sistema ez da gai herritarren beharrei bere kabuz erantzuteko. “Zainketen zorretan” dago sistema emakumeekiko, historikoki gizarteari jaso dituzten baino askoz lan eta emozio energia gehiago eman baitizkiote. Beraien denboraren zati oso garrantzitsu bat oparitzen egon zaizkio, gizarteak, orokorrean, eta gizonek, zehazki, bizirik iraun zezaten. Sostengua posible izan zedin, denbora eta energia eskaini diote bizitza sortzeari eta birsortzeari, izan egunerokoa zein belaunaldikoa. Denbora oparitu dute, eta oso zaila da denbora hori kalkulatzeko, maiz egiteko ikusezinetan aritu baitira.

Zaintzea ez da emakumeen betebeharrak, betebeharrak demokratikoak baizik. Etxeetan, zainketa bizikide guztien artean banatu behar da; hots, gizon, emakume eta haurren artean. Emakume helduei ez die ezerk etxeko lanekiko edo familiarren ongizatearekiko gaitasun edo ardura berezirik ematen.

Bestalde, botere eta erakunde publiko eta pribatuak herritar guztien zainketa egiteko konpromisoa eta betebeharrak beraien gain hartu behar dute, pertsona guztiak ez baitira familiar bizi edo ez baitute inor zainketa beharrez arduratuko denik. Batzuetan, beharrak gehiegizkoak izaten dira baliabide pribatuen bidez aurre egiteko, eta beharrezkoa izaten da laguntza formala eta profesionala jasotzea.

Gainera, nahiz eta zainketa lanak oso atsegingarriak izan daitezkeen, batez ere jabetza sentimendu batekin lotuta daudenean, maiz nekagarriak eta desesperatzeko modukoak bihurtzen dira. Horregatik, bermatu beharra dago EZ zaintzeko eskubidea, pertsona zaintzaileen lana ordeztuko duten zerbitzuen bidez, pertsona horien atsedena edo gozamina bermatzeko, edo prestakuntza eskaintzeko. Dena den, hori ez da posible izanen sistemari, buelta ematen diogun arte. Zainketa publikoa ez litzateke familiarren eta emakumeen zainketaren ordezkari izan behar, alderantziz baizik: sistema unibertsal, profesional, jasangarri eta arduratsu batek zainketa pribatuaren beharrik ez luke izanen, ez baldin bada zainketa boluntario eta gozagarri bat eskaini nahi delako.

Zainketa lanak bizi ona eta bizikidetzatza ona izateko betekizun gisa ulertzen baditugu, agerikoa da botere eta administrazio publikoak behartuta daudela horiek sustatu eta finantzatzera. Horrez gain, zainketen beharrak areagotuz doaz biztanleria zahartzen doan heinean. Emakumeak lan munduan sartzeak beste lan batzuk egiteko libre egon ezin izatea eragiten du, eta beraz, arreta eta esfortzu orduak murrizten. Bestalde, gizonak ez dute erantzukizun hori beraien gain hartu, ez erabakitasunez, ezta modu baliokidean ere. Zainketen urritasuna dago, beraz: zainketetan sortzen diren beharrei ordezkariak edo kontratazioen bidez erantzuten zaie, eta eskaintza horiek sektore pribatuak, irabazi asmorik gabeko erakundeek eta baldintza prekarioetan lan egiten duen emakumeen benetako armada batek egiten ditu.

## 3.1.3

### ZER DIRA ZAINKETEN ALDEKO ITUNAK ETA ZERGATIK AUKERATU EREDU HORI

#### ZER DIRA ZAINKETEN ALDEKO ITUNAK

NABIk martxan jarritako programa bat da, berdintasun politika publikoen esparruan, zainketei dagokienez Nafarroako Foru Komunitatearen eta bertako toki erakundeen konpromisoa sustatzeko, bizitzaren jasangarritasunari dagokionez funtsezkoa baita, berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortu nahi bada.

Zainketen aldeko Itunak Nafarroan planifikazio eta jarduketa mekanismo bat da, koordinatua. Akordio sorta batek osatzen du, eta zainketak ikusarazi, partekatu eta berrantolatzeke ekintza jakin batzuk egiten dituzte. Instituzioek sustatzen dituzte, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren barruko toki erakundeetako hainbat entitate eta erakunde publiko eta pribaturen laguntzaz eta horiekin koordinatuta. Horrez gain, herritarrek ere parte hartzen dute, eta badute zer esana.

Itun horien xedea da zainketak politika publikoen erdigunean kokatzeko proposamenak eta irtenbideak bilatzea, Nafarroan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra eraikitzeko.

Zergatik eman diezaiekegu zainketei izaera politikoa? Zainketei dagokienez harreman desorekatuak eraiki direlako, generoa oinarritzat hartuta. Beraz, harreman desorekatu horien atzean dauden printzipio moral eta ekonomikoak ezkutatu egin izan dira. Lanaren zatikatzeak eta diruzko interakzioak ez datoz bat bizitza defendatzen duten baldintza etikoetan oinarritutako itunarekin. Horrez gain, gizartea individualizatzen dute, giza praktikei eusten dieten harremanen sarea ezagutu gabe.

Itunak honako arazo hauei buruz hobeki hausnartzeko modua eskaintzen du: botere politikoari buruzkoak, giza interkonexioari buruzkoak eta gizarteak denboran eta bizi zikloan antolatzeke duen arazo konplexuari buruzkoak. Ez die uzten zainketatik ihes egiten uzten baztertzeagatik, absentziagatik edo norbanakoaren erantzukizunak kontratuzko betebeharrak mugatzen direlako aitzakiagatik.

Zainketa harremanak kapital sozialaren parte izateak norbanakoaren zainketaz harago joatera behartzen gaitu, zainketa mota “instituzionalago” batez hitz egitera garamatza, zeina eskaini beharko bailitzateke norbanakoaren eskubideekin partekatutako eskubide gisa. Zainketari buruzko politika publikoak eraikitzeko, zainketa eta emakumeendako ekitate politikak ezartzeko gobernu administrazioaren ahalegin instituzionala beharrezkoa den arren, prozesua ez da burutuko herritarren eskutik egiten ez bada; hots, gizarteko hainbat eragileren arteko, genero

eta belaunaldien arteko erantzunkidetasun eta elkarrenganako eta elkarrekiko konpromiso batetik. Zainketen aldeko Itunen garrantzi metodologikoa horretan datza.

Elkarrenganako eta elkarrekiko konpromisoa dagoen espazio bat sortzeak esan nahi du gizarteko eragile guztien artean banatu behar direla bizitzaren etapetan zehar hura sostengatzeko beharrezkoak diren zainketa lanak. Eragile horiek zainketa lanen horniduran parte hartzen dute, eta orokorrean, instituzio publikoak, enpresa sarea, auzokideen kolektiboak eta komunitate sareak eta etxeak eta etxe horietan bizi diren pertsonak izaten dira.

Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuneranzko zainketen bidetik egiteko, ITUNAK aukeratu ditugu proposamen eta formula gisa, garrantzitsutzat dauzkagun zenbait elementu biltzen dituztelako helburua lortzeko lan prozesuetan:

- Alde batetik, itunek beti egiten dute elkarrizketaren, negoziazioaren eta alderdien arteko akordioen alde. Proposamen eta irtenbide bila aritzen dira eragile publiko eta pribatuak, administrazioak eta baita nafar gizartea ere. Itunek barne hartzen dituzte alderdi horien guztien helburuak lortzen saiatzeko eta/edo lortzeko aukerak eta ekintzak bilatzen, diseinatzen eta proposatzen dituzten eragileak, mailak eta baldintzak.
- Bestalde, programa berrian Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunetan hamarkada bat baino gehiagoz jasotako ikaskuntza, esperientzia eta praktika on guztiak txertatzea ahalbidetzen dute. Izan ere, Nafarroako 172 udalerritan baino gehiagotan tokiko administrazioen artean lan egiteko eta komunikatzeko metodo gisa itunen formula garatzea lortu da horiei esker, eta emaitzak onak izan dira, gainera. Gizartearengan eragin handia izan dute.
- Azkenik, beste aukera batzuk ere aztertu ondoren, egiaztatu da formula hori dela egokiena alderdi parte-hartzaile guztiak inplika daitezen gaur egun zainketen arloan dauden erronkei aurre egin eta horiek konpontzen, eta, hala, lagun dezaten berdintasun politikek sustatutako emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna eraikitzen eta lortzen.

Hurbilketa eta hausnarketa, Indarrean dauden hitzarmen, lege eta arau garrantzitsuenei buruzkoa.

## A. NAZIOARTEA

- Emakumearen aurkako diskriminazio modu guztiak ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW), 34/180 Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpena, 1979ko abendukoa.
- Emakumeei buruzko Munduko IV. Konferentzia, Beijing, 1995.
- “Gure mundua eraldatu: garapen jasangarrirako Agenda 2030” Nazio Batuen Programa NBP.
- 156. hitzarmena, LNE (Lanaren Nazioarteko Erakundea), Espainiak berretsia, 1985ean.
- 189. hitzarmena, etxeko langileen lan duinari buruzkoa, 2011 (Espainiak 2022ko apirilean berresteko prozesuan)

## B. EUROPAKO ARAUDIA

- Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuna. Nizan sinatua, 2000ko abenduaren 7an.
- Europako Gutun Soziala, 1996koa.
- Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitu eta borrokatzeko. Istanbul, 2011.
- Haurren eskubideetarako Europako Kontseiluaren estrategia (2016-2021).
- Genero berdintasunerako Europako Kontseiluaren estrategia (2018-2013).

- Ministroen batzordeak estatu kideei egindako CM/Rec (2019) Gomendioa, sexismoa prebenitzeko eta sexismoari aurre egiteko.

## C. ESTATUKO ARAUDIA

- Espainiako 1978ko Konstituzioa:
  - 14. artikulua: sexuen arteko berdintasun printzipioa ezartzen du.
  - 9.2. artikulua: botere publikoen ardura dela dio “inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragozten edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoa, baita ekonomia, kultura eta gizarte bizitzan ere”.
- 39/1999 legea, azaroaren 5koa, langilearen familia eta lan bizitza uztartzea sustatzekoa.
- 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarriari buruzkoa.
- 36/2011 Legea, urriaren 10ekoa, jurisdikzio soziala arautzen duena. 139. artikulua gehitzen du, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeari buruzko eskubideen jurisdikzioari buruzkoa.

- 6/2019 Errege Lege Dekretua, martxoaren 1ekoa, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna bermatzeko presako neurriena.
- 8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren inpaktu sozial eta ekonomikoari aurre egiteko presako neurri bereziei buruzkoa.
- 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna garatzeko presako neurriena: toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du. Azken xedapenetako lehena.

Artikuluaren 2. apartatuari paragrafo bat gehitzen dio: o) Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko ekintzak, baita genero indarkeriaren aurkakoak ere.

Aldaketa hori egin da toki administrazioak aukera izan dezan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko jarduketak egiteko, baita genero indarkeriaren aurkakoak ere. Horregatik, halako kontuak jaso egin behar dira apirilaren 2ko 7/1985 legearen 25.2 artikuluan ageri den udalerrien eskumen propioko gaien zerrenda gisa jasotako katalogoan, horixe baita aldaketa horren xedea.

#### D. FORU ARAUDIA

- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.

Lege hori da Nafarroak berdintasun politiketan duen eskumen eksklusiboa gauzatzeko tresna, foru araubidea berriz integratu eta hobetzeko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.18 artikuluan du oinarria.

- 68/2021 FORU DEKRETUA, uztailaren 28koa, Nafarroako Berdintasunerako Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen urriaren 30eko 260/2019 Foru Dekretua aldatzen duena.

## 3.3 ESPARRU POLITIKOA

### 3.3.1

#### AURRETIKO ESPERIENTZIAK ETA METODOLOGIAK

- EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN KOORDINATZEKO NAFARROAKO ERAKUNDE ARTEKO III. AKORDIOA.
- GENERO BERDINTASUNA NAFARROAKO TOKI ERAKUNDEETAN. UDALETAKO BERDINTASUN ALORRETAKO LANA PLANIFIKATU, KUDEATU ETA EBALUATZEKO IBILBIDEA.
- KONTZILIAZIOAREN ALDEKO TOKIKO ITUNAK.

### 3.3.2

#### ZAINKETEN ALDEKO ITUNEN JARDUKETA ESPARRU BERRIA

KONTZILIAZIOETIK ZAINKETETARAKO TRANTSIZIOA NAFARROAKO TOKI ERAKUNDEETAN.

2019–2023 LEGEGINTZALDIKO  
PROGRAMA AKORDIOA

Nafarroako Parlamentuaren 2019ko martxoaren 14ko osoko bilkuran onartu zen Nafarroako Gobernuari ekonomia sozialaren esparruan zainketei eta laguntza pertsonalari lehentasuna emateko eskatzen zion ebazpena. Ebazpen horrek bultzatzen du departamentu guztiek zainketa eta pertsonen beharrak politiken erdigunean jar ditzaten bultzatzen du.



## NAFARROAKO 2030 AGENDA

5. helburua da berdintasuna lortzera bideratutako GJHa: Generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta neskato guztiak ahalduntzea. Nafarroan, genero arteko berdintasunaren politika GJH horren xede guztiak lortzera bideratzen da:

5.1 jomuga. Sexuagatiko diskriminazioari amaiera ematea

5.2 jomuga. Genero indarkeria deuseztatzea

5.3 jomuga. Behartutako ezkontzak eta emakumeen genitalen mutilazioa deuseztatzea

5.4 jomuga. Erantzunkidetasuna eta kontziliazioa sustatzea

5.5 jomuga. Emakumeen aukera berdintasuna eta parte-hartzea ziurtatzea

5.6 jomuga. Sexu eta ugalketa osasuna ziurtatzea

## NAFARROA SUSPERTU PLANA

Nafarroa Suspertu Planak COVID-19ak eragindako errealitatea eta eragina ditu abiapuntu, eta horiek oinarri hartuta lurraldea berreskuratzeko aukerak aprobetxatuko ditu, baita indarguneak eta erronkak ere. Eta halaxe lortuko du berreraikitze ekonomiko eta sozial koherentea eskaintzea irteera gisa.

Planak bere gain hartzen ditu 2030 Agendan garapen jasangarriari buruz ezarritako helburuak lortzea. Aurrez, Nafarroako Gobernuak, pandemiaren lehenengo hiru hilabeteetan premiazko neurri batzuk ezarri zituen, eta Espainiako Gobernuak eta Europako batzordeak ezarritakoen osagarri dira.

Nafarroa Suspertu Plana, eta bere lehentasun eta jarduketak bat datoz Garapen Jasangarriko 2030 Agendarekin, Europako Itun berdearekin (EU Green Deal), Europako Suspertze Planarekin (Next Generation EU) eta Ekonomiaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Planarekin (“España Puede”).

## NEXT GENERATION EU FUNTSAK

Next Generation EU funtsak Europar Batasunak sortutako tresna bat dira, Estatu kide guztietan susperraldi jasangarri, uniforme, inklusibo eta bidezkoa bermatzeko sortua. Funts horien esparruan, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatean 2020 eta 2026 urteen artean garatzeko 125 proiektu baino gehiago identifikatu ditu.

Next Generation funtsen GENERO BERDINTASUNA ardatzaren barruko palanka politiketako bat (zortzigarrena) dira zainketen ekonomia eta enplegu politikak, eta horietara bideratuko da funtsen % 5,7. Zeharkako gai gisa txertatzen da “bizitzaren ziklo osoari laguntza” eta, ongizate estatuaren hiru zutabeen errefortzu lanak eginen dituen laugarren zutabea osatuko du: “Zainketen ekonomia”.

## ERANTZUNKIDETASUNEZKO KONTZILIAZIOAREN ALDEKO DEPARTAMENTU ARTEKO TALDEA

COVID-19ak sortu zuen krisiak argi utzi zuen zainketa behar-beharrezkoa dela ez ezik, etxeko esparruan zainketa lanak emakumeen eta gizonen artean ekitatiboki banatzea ezinbestekoa dela.

Krisi egoera horren aurrean, 2020 uztailean proposatu zuen Nafarroako Berdintasunerako Institutuak erantzunkidetasunezko kontziliazioaren aldeko talde eragilea osatzea. Talde horrek zeinak Erantzunkidetasunezko Kontziliazioaren aldeko Departamentu arteko Taldea izena hartuko, eta honako departamentu hauek izanen ziren kide: NABI, Enplegua, Hezkuntza, Eskubide Sozialak, Toki Administrazioa eta Garapen Ekonomikoa (Enpresa politika eta lana).

Departamentu arteko talde hori izan zen egungo Zainketen aldeko Foru Ituna osatzeko lantaldearen aurrekari zuzena. Hala jasotzen du, hain zuzen ere, dokumentuak berak, eta ezartzen du epe ertainerako neurri gisa ZAINKETEN ALDEKO FORU ITUN bat sortzea.

## EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO NAFARROAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2022-2027

Plan estrategiko hori jasota dago Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legearen 14. artikuluan, eta Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan berdintasuna sustatzeko helburuak eta jarduketak biltzen ditu, baita horiek zabaltzea, jarraipena egitea eta ebaluatzea erraztuko duen adierazleen kudeaketa sistema bat ere.

Nafarroako Zainketen aldeko Itunen Programak bat egiten du plan horrekin. Izan ere, planak, bere II. ildo estrategikoan honako hau adierazten du: AURRERA EGITEA GENERO BERDINTASUNEZKO EREDU SOZIOEKONOMIKO BATERANTZ.

Honako hiru helburu estrategiko hauek lotura dute zainketekin eta zainketen sektoreko baldintza sozioekonomikoak eta lan baldintzak hobetzearekin:

5. HE: bizitzari eusteko zainketek duten balioa onartzea.

6. HE: emakumeen pobrezia murriztea Nafarroan.

7. HE: Nafarroako enpresek eta erakundeek berdintasunarekin duten konpromisoa sustatzea.

## ERANTZUNKIDETASUN PLANA

Estatu mailako politika publiko berria da Erantzunkidetasun Plana, eta Berdintasun Ministerioaren Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatuko Idazkaritzan kokatua dago. Planaren xedea da Espainia mailan zainketen bermea eskubide izan dadin bidea egiten hastea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ikuspegitik eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 44. Artikuluaren babesean, eskubide unibertsalak dela iritzita, onuradunen lan baldintzak aintzat hartu gabe.

Nafarroako Foru Komunitateak ez du estatu mailako programa horretako funtsik jasotzen, baina borondatez parte hartzen du Erantzunkidetasun Planaren lantaldean. Era berean, bat egiten du plan horretako zainketen kontzeptua ulertzeko moduarekin eta autonomia erkidegoen ardurapeko hiru ardatzekin, zeintzuk Zainketen aldeko Itunetan zehazten baitira.

## AZTERNALAK ETA IKERKETAK

Zainketei eta zainketen sektoreko lan baldintzei dagokienez, honako ikerketa hauek egin dira, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sustatuta, batzuk NABIren Nafarroa Suspertu planean ezarritako neurrietan agertzen ziren, hura erabili baita, hain zuzen ere, Nafarroako Zainketen aldeko Itunen Programan, diagnostiko gisa:

Etxeko langileak Nafarroan: haien lan baldintzen eta erregularizazio prozesuaren azterketa azterlana.

<https://www.igualdadnavarra.es/eu/etxeko-langileak-nafarroako-azterketa>

COVID-19aren krisiak emakume nafarrengan izandako eragina azterlana.

<https://www.igualdadnavarra.es/eu/konfinamendua-lehen-pertsonan-bizipenak-eta-lekukotzak>

Zainketen erradiografia Nafarroan azterlana. Diagnostikoaren txostena 2020.

<https://www.igualdadnavarra.es/eu/zainketen-erradiografia-nafarroan-ikerketaren-emaitzenaurkezpena>

Bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateragarri egiteko tokiko itunen diagnostikoa: ondorioak eta proposamenak.

# IV. BLOKEA

KONTZILIAZOTIK  
ZAINKETETARAKO  
TRANTSIZIO ALDIKO  
EGITEKOEN  
KRONOLOGIA

# 4.1 NAFARROAKO ZAINKETEN ALDEKO ITUNEN PRESTAKETAREN KRONOGRAMA: FORU ITUNAK ETA TOKIKO ITUNAK

Koadro honetan jasotzen da Nafarroako Zainketen aldeko Itunen Programaren prestaketa eta garapen prozesua, diseinu fasetik hasi eta

programa martxan jarri artekoa. Prozesuak bi atal ditu: Zainketen aldeko Foru Ituna eta Zainketen aldeko Tokiko Itunak.

## ZAINKETEN ALDEKO FORU ITUNA

### ZUZENDARITZA NAGUSIEN BILERETAKO

### BERRESPEN POLITIKOA

### TALDE ERAGILEA

- PARTE-HARTZAILE KOPURUA
- DEPARTAMENTUAK BERRIKUSTEA
- DEPARTAMENTUAK AUKERATZEA
- DEPARTAMENTUEKIN HARREMANET
- TALDE ERAGILEAN SARTZEA

### ZAINKETEN ALDEKO ITUNEN ESPARRU DOKUMENTUA

### BALIOZKOTZEA

- ESPARRUAK
  - PERTSONAK
  - KOMUNITATEA
  - KUDEAKETA
  - INGURUAN

### GIZARTE DINAMIZAZIOA

### PROZEDURAK


### ONESTEA

### METODOLOGIA/PARTE-HARTZEAK

### SINATZEA

### MARTXAN JARTZEA

**ZAINKETEN ALDEKO FORU ITUNA**



# 4.2 TRANTSIZIO ALDIA MARTXAN JARTZEKO EGITEKOEN ZERRENDA

Jarraian bildu dira kontziliaziotik zainketetarako trantsizio aldian bete beharreko egiteko eta eduki guztiak. Horien artean daude orain arte trantsizioaren diseinu prozesuan egin diren

jarduketak, baita 2022an, zainketen aldeko tokiko Itunak osatzen hasi aurreko prozesua martxan jartzen denean, egingen direnak ere.

ZK.	EGITEKOA	EDUKIAK
1	NAFARROAKO ZAINKETEN ALDEKO ITUNEN PROGRAMAKO DOKUMENTUAK LANDU ETA BALIOZKOTZEA	1. ZAINKETEN OINARRIAK DOKUMENTUA 2. KONTZILIAZOTIK ZAINKETETARAKO TRANTSIZIOA DOKUMENTUA
2	KONTZILIAZIOAREN ALDEKO TOKIKO ITUNEN AMIA ANALISIA	1. KONTZILIAZIOAREN ALDEKO TOKIKO ITUNEN ESPERIENTZIAREN ANALISIA: AHULGUNEAK / MEHATXUAK / INDARGUNEAK / AUKERAK 2. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK
3	KANPAINA	1. KANPAINA ERKIDERAKO IDEIAK 2. KANPAINA NOLA ANTOLATU 3. KANPAINAREN ZABALKUNDE EPEA 4. KANPAINAKO EGITEKOAK: LOGOA, FORMATUA...
4	ALDAKETAREN SOZIALIZAZIOA	1. ENTITATEEI ITUN BAKOITZERAKO DEIALDIA EGITEA (ALDAKETAREN INFORMAZIOA) 2. INFORMAZIO BILERAK 3. PRESTAKUNTZA SAIOAK 4. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK EGITEA: EDUKIAK ETA PARTE-HARTZAILEAK
5	PRESTAKUNTZA PROPOSAMENA	1. PRESTAKUNTZA PROPOSAMENAREN FORMATUA: MODALITATEA (AURREZ AURRE/ONLINE), IRAUPENA, PRESTATZAILEAK... 2. PRESTAKUNTZAREN EDUKIAK 3. TRANTSIZIO PROZESUAREN DINAMIZATZAILEENDAKO PRESTAKUNTZA
6	TRANTSIZIOAREN EGUTEGIA	1. TRANTSIZIO ALDIAREN BARRUAN PROGRAMATUTAKO EKINTZEN HASIERA ETA BUKAERA ADIERAZTEA 2. KRONOGRAMA BAT OSATZEA, TRANTSIZIO ALDIKO EGITEKO ETA JARDUKETA GUZTIAK BILTZEN DITUENA
7	SENTSIBILIZAZIO KANPAINA MARTXAN JARTZEA	
8	FORU ITUNA ETA TOKIKO ITUNAK KOORDINATZEKO ORGANOAREN DISEINUA	1. ERAKUNDE MOTAREN PROPOSAMENA 2. ERANTZUKIZUNAK 3. EGINKIZUNAK
9	ITUNAK EGITEKO GIDA TOKIKO ITUNEN EZAUGARRIETARA EGOKITZEA	1. TOKIKO ITUNEN BERARIAZKO EZAUGARRIAK ZEINTZUK DIREN ATZEMATEA: ANTOLAKETA EGITURAK, ERAKUNDE PARTE HARTZAILEAK, ITUNETAKO EKINTZAK... 2. ZAINKETEN ALDEKO ITUNEN GIDAREN ERANSKIN BAT EGITEA, ETA BERTAN SARTZEA TOKIKO ITUNEN ELEMENTU BEREIZGARRIAK
10	GILTZAK DIREN ERAGILEEI PROZESUAREN BERRI EMATEA	



# 4.3 ESKU HARTZEKO ARDATZEN DESKRIBAPENA ETA EDUKIAK

Honela lan egitea proposatzen da: trantsizio aldian itunen bidez egiten diren esku-hartze guztiek formatu bera izatea eta itun bakoitzak bere edukiak, parte hartuko duten pertsonak eta jarduketa guztien egutegi bat definitzea.

Trantsizio aldian hiru ardatz edo garrantzia eman nahi zaien esku hartzeko hiru alor daude. Helburua da horien bidez egoera egoki bat sortzea Nafarroako Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunen bidez 2005etik orain arte landutako kontziliazio kontzeptutik zainketen kontzeptura igarotzeko.

## **1. BALIO ALDAKETAREN SOZIALIZAZIOA: KONTZILIAZIOTIK ZAINKETETARA.**

HELBURUA: baldintza jakin batzuk lortzea, instituzioetako eragileek, eragile politikoek, ekonomikoek eta sozialek eta, orokorrean, herritarrek parte har dezaten zainketen aldeko tokiko itun bat egiten, ezartzen eta jarraipena eta ebaluazioa egiten.

EDUKIAK: zainketei eta horiei eskaintzen zaien denborari ikusgarritasuna eta garrantzia emateko ekintzak: auto zainketa/zainketa pertsonalak, beste pertsona batzuen zainketa eta gure inguruen zainketa (fisikoak, sozialak eta naturalak).

## **2. ZAINKETEI ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA**

HELBURUA: Itunetan parte hartuko duten pertsonak berdintasun eta zainketa gaietan prestatzea.

EDUKIAK: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta zainketei lotutako beste ezagutza, metodo, jarrera eta balio batzuk ikasteko eta jasotzeko jarduketak dira eta, beraz, pertsonen eta inguruko bizitzaren eta ongizatearen hainbat alderditan dute eragina. Prestakuntza horren helburua da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea eta zainketen banaketari eta elkarrekikotasunari buruzko esperientziak ezagutzea, zabaltzea eta elkarrekin partekatzea.

## PRESTAKUNTZA PROGRAMA, ZAINKETEI ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKOA

### NORI ZUZENDUA

Kontzilioaren aldeko Tokiko Itunak sinatu eta zainketen kontzepturazko trantsizioa egin nahi duten erakunde guztietako ordezkariak.

### NOIZ

Kontziliozko zainketetarako trantsizio aldian (2022an).

### PRESTAKUNTZAREN EDUKIAK

“Zainketen oinarriak” dokumentuaren esparru teorikoa eta kontzeptuala eta zainketen esparruan eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun errealaren eraikuntzaren esparruan kontzilioari eta erantzunkidetasunari buruz beharrezkoak eta argitzaileak direnak.

Txertatuz joanen dira Nafarroako Zainketen aldeko Itunen Programa osatuko duten prozedura, metodo eta tresna guztiak.

Prestakuntza proposamenak egiten dituzten tokiko itun guztiek izanen dute NABlko teknikarien aholkularitza eta laguntza.

\* Edukiak prestakuntzan parte hartzen dutenen ezagutzen eta esperientzien arabera diseinatu edo egokituko dira. Horrela lortuko da tokiko itunaren trantsizio prozesuaren beharretara egokitzea.

### 3. KANPAINA ETA HEDAPENA

HELBURUA: bizitzari eusteko funtsezko garrantzia duten dimentsioa direnez zainketak, administrazioa, beste erakunde publiko eta pribatu batzuk eta biztanleria, orokorrean, garrantzia horrekiko sentikor bihurtzea.

EDUKIAK: NABIk zainketen inguruan martxan jarritako sentsibilizazio kanpainari hertsiki

lotutako jarduketak. Kanpaina honek xedea izanen da herritarrengan, administrazio publikoetan eta foru komunitateko erakunde eta antolakuntza publiko eta pribatuetan eragitea, zainketei eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez.

Esku hartzeko ardatz bakoitzean martxan jartzen ahal diren neurriak:

### LAN PROGRAMA: KONTZILIAZIOETIK ZAINKETETARAKO TRANTSIZIOA

ESKU-HARTZEAREN ARLOA	NEURRIEN ADIBIDEAK
AI 1 BALIO ALDAKETAREN SOZIALIZAZIOA: KONTZILIAZIOETIK ZAINKETETARA	<ul style="list-style-type: none"><li>— INFORMAZIO SAIOAK, TALDE POLITIKOEI ETA KTIETAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEI PROGRAMA BUKATU DELA ADIERAZI, ETA ZAINKETEN ALDEKO ITUNAK MARTXAN JARRI IZANAREN BERRI EMATEKO.</li><li>— INFORMAZIO SAIOAK, KTIETAKO ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEETAKO HERRITARREI PROGRAMA BUKATU DELA ADIERAZI, ETA ZAINKETEN ALDEKO ITUNAK MARTXAN JARRI IZANAREN BERRI EMATEKO.</li><li>— KTIETAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDE PUBLIKO ETA PRIBATUENDAKO AHOLKULARITZA.</li><li>— ZAINKETEI BURUZKO INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA, ZAINKETEN KONTZEPTU BERRIAREN BARRUAN ZER SARTZEN DUGUN ADIERAZIZ</li><li>— ZAINKETEN ARLOKO UDAL-ERREALITATEA EZAGUTZEKO AZTERLANAK, IKERKETAK ETA DIAGNOSTIKOAK.</li></ul>
AI 2 ZAINKETEI ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"><li>— EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA.</li><li>— ZAINKETEI BURUZKO PRESTAKUNTZA, KTIETAN PARTE HARTZEN DUTEN TOKI ERAKUNDEETAKO PERTSONEI ZUZENDUA.</li><li>— ZAINKETEI BURUZKO PRESTAKUNTZA, HERRITARREI, OROKORREAN, ZUZENDUA, KTIK DITUZTEN EDO IZAN DITUZTEN TOKI ERAKUNDEETAKOEI.</li><li>— TAILER MISTOA, HAUSNARKETARAKO ETA ZAINKETEI ETA DENBORAREN BANAKETARI BURUZKO BALIOAK ALDATZEKO ESPERIENTZIAK PARTEKATZEKO.</li></ul>
AI 3 KANPAINA ETA HEDAPENA	<ul style="list-style-type: none"><li>— SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK, HERRITARREI ZUZENDUAK, ZAINKETA LANEN GARRANTZIA AZPIMARRATZEKO.</li></ul>



## V. BLOKEA

PROZEDURA  
ETA TRESNAK,  
KONTZILIAZIO  
ZAINKETETARAKO  
TRANSIZIO ALDIKO LAN  
PROGRAMA  
GARATZEKO:

EDUKIAK/EKINTZAK,  
KRONOGRAMA ETA  
PARTE-HARTZAILEAK.

# 5.1 LAN PROGRAMAREN LABURPEN FITXA

Honako proposamen honen xedea da kontziliaziotik zainketetarako trantsizioan parte hartzen duen itun bakoitzaren gida izatea, gerora zainketen aldeko tokiko itun bat osatzeko. Prozesu horretan, itun bakoitzak adostuko du zer

neurri jarriko dituen martxan aurrez ezarritako esku hartzeko ardatz bakoitzeko. Hala, helburuak eta edukiak adieraziko ditu, baita arduradunak zeintzuk diren ere. Horrez gain, neurri bakoitza martxan jartzeko egutegi bat egingen du.

TRANTSIZIO ALDIAN ZER ARDATZETAN ESKU HARTU ETA ERAGINEN DEN IDENTIFIKATZEKO FITXA:

## TRANTSIZIO ALDIKO LAN PROGRAMA: KONTZILIAZOTIK ZAINKETETARA

EPEALDIA

HARREMANA

Izena—

Helbide elektronikoa—

Telefonoa—

DEPARTAMENTUA/ERAKUNDEA  
/TOKI ERAKUNDEA

## ZEIN ALORRETAN ESKU HARTUKO DEN:

AI 1. BALIO ALDAKETAREN SOZIALIZAZIOA: KONTZILIAZOTIK ZAINKETETARA  
ZERRENDATU NEURRIAK

AI 2. ZAINKETEI ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO  
PRESTAKUNTZA  
ZERRENDATU NEURRIAK

AI 3. KANPAINA ETA HEDAPENA  
ZERRENDATU NEURRIAK

## 5.2 EKINTZAK, ARDURADUNAK ETA EGUTEGIA

Atal honetan definituko dira kontziliaziotik zainketetarako trantsizio aldian parte hartuko duten itunen esku hartzeko ardatz bakoitzean martxan jartzeko ekintza zehatzak.

Aurreikusitako jarduketa bakoitzean honako dokumentu hau egin beharko da, beharrezkoa baita baliabideak kontrolatu eta gerora jarduketaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko:

### NEURRIAREN DATUAK (ZK.)

ESKU-HARTZEAREN ARLOA:

HELBURUAK:

JARDUKETA (IZENA):

DESKRIBAPENA:

ERAKUNDE EDO DEP. ARDURADUNA:

HARREMANETARAKO PERTSONA  
HELBIDE ELEKTRONIKOA ETA TELEFONOA):

CONTINUIDAD DE LA ACTUACIÓN:  
EGUNGO URTEA

BESTE URTE BATZUK

HASIERA HILABETEA ETA IRAUPENA:

AURREKONTU ZENBATETSIA:

ESKURAGARRI DAUDEN BALIABIDEAK:

KANPO BALIABIDEAK:

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK:

BARNEKOAK:

KANPOKOAK:

ESPEROTAKO EMAITZAK (EBALUAZIO ADIERAZLEEN ARABERA ADIERAZI):

BESTALDE, HONAKO TAULA HAUEK ERE BETEKO DIRA, BAT ESKU HARTZEKO ARDATZ BAKOITZEKO, ETA BERTAN, EPE HORRETAN MARTXAN JARRI BEHARREKO NEURRIEZ GAIN, JARDUKETA BAKOITZEKO PERTSONA ARDURADUNAREN IZENA ADIERAZIKO DA, BAITA NOIZ EGINEN DIREN ADIERAZTEN DUEN EGUTEGI BAT ERE.

## AI1. BALIO ALDAKETAREN SOZIALIZAZIOA: KONTZILIAZIOETIK ZAINKETETARA

### HELBURUAK

Baldintza jakin batzuk lortzea, instituzioetako eragileek, eragile politikoez, ekonomikoez eta sozialez eta, orokorrean, herritarrek parte har dezaten zainketen aldeko tokiko itun bat egiten, ezartzen eta jarraipena eta ebaluazioa egiten.

JARDUKETA	ARDURADUNA	GAUZATZE ADIERAZLEAK	EMAITZA ADIERAZLEAK	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

## AI2. ZAINKETEI ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA

### HELBURUAK

Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunetan parte hartuko duten pertsonak berdintasun eta zainketa gaietan prestatzea.

JARDUKETA	ARDURADUNA	GAUZATZE ADIERAZLEAK	EMAITZA ADIERAZLEAK	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

## AI3. KANPAINA ETA HEDAPENA

### HELBURUAK

Bizitzari eusteko funtsezko garrantzia duten dimentsioa direnez zainketak, administrazioa, beste erakunde publiko eta pribatu batzuk eta biztanleria, orokorrean, garrantzia horrekiko sentikor bihurtzea.

JARDUKETA	ARDURADUNA	GAUZATZE ADIERAZLEAK	EMAITZA ADIERAZLEAK	URT	OTS	MAR	API	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE



# VI. BLOKEA

KONTZILIAZIO  
ZAINKETETARAKO  
TRANSIZIO  
ALDIKO LAN  
PROGRAMAREN  
JARRAIPENA  
ETA EBALUAZIOA

# 6.1 JARDUKETEN JARRAIPENERAKO FITXA

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko bi eredu proposatzen dira. Hala ere, trantsizio aldian parte hartzen duen itun bakoitzak hobekien deritzon jarraipen eta ebaluazio mekanismoak proposatuko ditu; dena den, emaitzak aztertu beharko ditu beti, baita ebaluazio txostenak erantsi ere.

Kontziliaziotik zainketetarako trantsizio aldiaren ebaluazioaren helburuak honako hauek dira:

- Emaitzak ebaluatzea, hots, jarduketetan ezarritako helburuetatik zenbat lortu diren eta sortu duten eragina zein izan den.
- Prozesuak ebaluatzea, hau da, programatutako ekintzen artetik zeintzuk egin diren eta zer emaitza izan duten.
- Trantsizioaren arduradunak edo kudeaketa egiturak ebaluatzea, esan nahi baita, egituren funtzionamendua eta egin litezkeen hobekuntzak aztertzea, zainketen aldeko tokiko Ituna sinatzen denerako.

NEURRIEN DATUAK (ZK.) FITXAK LAN PROGRAMAREN HASIERAN BETE ONDOTIK (5.2 APARTATUAN JASOTAKO EREDUA),  
BESTE FITXA BAT BETEKO DA JARDUKETA BAKOITZA BUKATZEAN, EMAITZEN EBALUAZIOA EGITEKO:

## NEURRIEN JARRAIPENERAKO FITXA (ZK.)

ESKU-HARTZEAREN ARLOA:

HELBURUAK:

JARDUKETA (IZENA):

DESKRIBAPENA:

ERAKUNDE EDO DEPARTAMENTU  
ARDURADUNA:

HARREMANETARAKO PERTSONA  
HELBIDE ELEKTRONIKOA ETA TELEFONOA

JARDUKETAREN JARRAITUTASUNA:

EGUNGO URTEA:

BESTE URTE BATZUK:

## NEURRIAREN BETETZE-MAILA

GUZTIZKOA

PARTZIALA

NULUA:

HASIERA HILABETEA ETA ZENBATETSITAKO  
IRAUPENA:

HASIERA HILABETEA ETA IRAUPEN  
ERREALA:

AURREKONTU ZENBATETSIA:

ERABILITAKO AURREKONTUA/AMAIERAKOA:

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK:

BARNEKOAK:

KANPOKOAK:

JARDUKETEN JARRAIPEN ADIERAZLEAK:

ESPEROTAKO EMAITZAK (EBALUAZIO  
ADIERAZLEEN ARABERA ADIERAZI)

IZANDAKO EMAITZAK (EBALUAZIO  
ADIERAZLEEN ARABERA ADIERAZI)

EKINTZA EZARTZEKO ZAILTASUNAK:

ZAILTASUNEI AURRE EGITEKO EGIN DIREN ALDAKETAK EDO EGOKITZAPENAK:

## 6.2 PROGRAMAREN JARRAIPEN ETA EBALUAZIO TXOSTENA

Azkenik, trantsizio aldian hartutako neurri bakoitzetik jasotako informazioa erabiliz beteko da kontziliaziotik zainketetarako trantsizio aldirako lan programaren ebaluazio fitxa (2022), eta amaierako txostena gehituko zaio horri.

Amaierako txosten horretan adierazleekiko izandako emaitzak, egiteke gelditu diren ekintzak, izandako zailtasunak eta zainketen aldeko tokiko itunari aplikatzen ahalko zaizkion hobekuntza proposamenak aztertuko dira.

### **KONTZILIAZIOTIK ZAINKETETARAKO TRANTSIZIO ALDIKO LAN PROGRAMAREN EBALUAZIOA**

---

ARDURADUNA

---

NOIZ EGIN DEN

---

EBALUAZIO ALDIA

**AI3. BALIO ALDAKETAREN SOZIALIZAZIOA:  
KONTZILIAZOTIK ZAINKETETARA**

ERAKUNDE ARDURADUNA	EGINDAKO JARDUKETA	HELBURUAK	BETETZE EHUNEKOAK

**AI2. ZAINKETEI ETA EMAKUMEEN ETA GIZONEN  
ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKO PRESTAKUNTZA**

ERAKUNDE ARDURADUNA	EGINDAKO JARDUKETA	HELBURUAK	BETETZE EHUNEKOAK

**AI3. KANPAINA ETA HEDAPENA**

ERAKUNDE ARDURADUNA	EGINDAKO JARDUKETA	HELBURUAK	BETETZE EHUNEKOAK

## KONTZILIAZIOETIK ZAINKETETARAKO TRANSIZIO ALDIAREN EMAITZAK

	AURREIKUSITAKO GEHIENEO KOPURUA	LORTUTAKO KOPURUA	PORCENTAJE CUMPLIDO	PORCENTAJE PENDIENTE
JARDUKETAK				
AMAIERAKO TXOSTENA	AMAIERAKO TXOSTENA LAN PROGRAMAKO NEURRIEN EBALUAZIOETATIK ATERATAKO ONDORIOEI ERANTSI, ETA BERTAN JASO IDENTIFIKATUTAKO ZAILTASUNAK ETA HOBETU DAITEZKEEN ELEMENTUAK.			
EBALUAZIO TXOSTENAREN SINADURA	LEKUA ETA DATA	TXOSTENAK AURKEZTEN DUEN ITUNAREN ARDURADUNAREN IZENA ETA SINADURA		



**Nafarroako Berdintasunerako Institutuak**  
Nafarroako Zainketen aldeko Itunak programari buruzko informazioa, aholkularitza eta koordinazioa eskaintzen ditu, laguntza teknikoarekin eta bertako langileekin.

---

**INSTITUTO NAVARRO  
PARA LA IGUALDAD**  
Técnica de Igualdad de la  
Subdirección de Ciudadanía,  
Empoderamiento y  
Participación de las Mujeres

---

**NAFARROAKO  
BERDINTASUNERAKO  
INSTITUTUA**  
Emakumeen Herritartasun,  
Ahduntze eta Partaidetzarako  
Zuzendariordetzaren Berdintasun  
Teknikaria

---

T 848 42 98 78  
pactosinai@navarra.es  
[www.pactoscuidados.igualdadnavarra.es](http://www.pactoscuidados.igualdadnavarra.es)



**Instituto Navarro  
para la Igualdad**  
Nafarroako  
Berdintasunerako  
Institutua



**PACTOS POR LOS  
CUIDADOS EN NAVARRA**  
ZAINKETEN ALDEKO  
ITUNAK NAFARROAN